



# PROTOKOLO OROKORRA

## 2021/22 IKASTURTEAN IKASTETXEETAN COVID-19ren AURREKO PREBENTZIO NEURRIAK

2022/04/20

**1. SARRERA****2. HELBURUA****3. OINARRIZKO PREBENTZIO-NEURRIAK**

- A) Taldeen antolaketa.**
- B) Prebentzio pertsonaleko neurriak.**
- C) Antolaketa-neurriak.**
- D) Garbiketa eta aireztapena.**
- E) Kudeaketa Zentroetan.**
- F) Covi-19arekin bateragarri diren sintomen eta kasu positiboen aurrean jardutea.**
- G) Ikastetxea antolatzeko beste neurri batzuk.**



## 1.- SARRERA

Ikastetxeetan COVID-19ari aurre egiteko neurriak eraginkorrak gertatu dira orain arte eta hain funtsezkoa den hezkuntza-jardueraren jarraipena ahalbidetu dute, hezkuntza-komunitatearen beraren egokitzapen-gaitasunari, pandemiaren une bakoitzean ezarritako neurriekiko konpromisoari eta denbora horretan metatutako ikaskuntzari esker.

Ikastetxeetako neurriak berrikusi dira, egungo egoera epidemiologikoa hobetzearekin, herritar guztien artean txertaketak aurrera egitearekin eta pandemiari erkidego mailan emandako erantzunari neurriak egokitzearekin bat, honako estrategia honen ildotik: [COVID-19aren aurkako zaintza eta kontrol Estrategia pandemiaren fase akutuaren ondoren.](#)

Gaur egungo egoera, funtsean, txertaketaren aurrerapen handiak eta Omikron aldaeraren ezaugarriek baldintzatzen dute. Aldaera hori da gaur egun dabilena, eta intzidentzia handia baina inpaktu txikiagoa izan du. COVID-19aren epidemiologiaren aldaketa honek zaintza eta kontrolerako egungo strategiaren trantsizioa errazten du, kasu larrien kopuru handia saihesteko SARS-CoV-2ren transmisioa murriztean zentratua dagoen estrategiatik, zaurgarritasun handieneko pertsonen eta eremuei zuzendutako jardueretan zentratutako estrategia baterantz.

Hezkuntza-sisteman aurrez aurreko eskolei eusteko antolamendu-neurriek plangintza egonkorra behar dute, egoera epidemiologikoa gerta daitezkeen aldaketen aurrean neurriak malguak izan daitezzen. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da orain arte ezarritako antolaketa-egitura eta koordinazio-mekanismo batzuk mantentzea, neurriak malgutuz edo, egoerak hala eskatuko balu, zorrotzago jokatuz.

Neurri hauek beharrezkoa denean eguneratuko dira, egoera epidemiologikoaren aldaketak hala eskatuta edo ebidentzia zientifiko berria sortuko balitz.

## 2.- HELBURUA

Ikastetxeek hartu beharreko neurrien helburua **hezkuntza-jarduera presentzialaren** garapena bermatzea da, betiere COVID-19 hezkuntza-komunitatean ez zabaltzeko. Beraz, helburua da gure ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzea segurtasun- eta osasun-baldintzetan, bai eta ikastetxean lan egiten duten pertsonentzat ere. Ildo horretan, kontuan hartu behar dira, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak garatzen dituen COVID-19ren aurkako laneko arriskuen prebentzio-neurriak.

Protokolo Orokor honen helburua antolaketa-ikuspegitik jarduteko jarraibideak ezartzea da, betiere pertsonen segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatuz.



### 3.- OINARRIZKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Metatutako ebidentzia zientifikoak erakusten digu SARS-CoV-2 pertsonatik pertsonara transmititu daitekeela hainbat bideetatik. Horietan nagusia da, pertsona gaixo batek igorritako **arnasketa-aerosolak** edo tamaina handiagoko partikulak beste pertsona batengana iristea. Sortutako aerosolen kontzentrazioa eta tamaina garatutako jardueraren arabera da: minimoa da arnasa lasai hartzean, eta gero eta handiagoa berriz, hurrenkera honetan, ahapeka hitz-egitean, ozen aritzean, garrasi egitean, abestean, ezul egitean eta jarduera fisiko biziak egitean.

Kutsatzea zeharkako kontaktuaren bidez ere gerta daiteke, gaixoaren arnas jariakinekin kutsatutako esku edo objektuek arnas bideetako mukosekin eta pertsonen konjuntibarekin (begiko mintza) kontaktua izatean.

Ikastetxeetan, COVID - 19ren aurreko prebentzioaren, higiearen eta osasunaren sustapenaren oinarrizko printzipioak honako hauetan egituratzen dira:

- A) Taldeen antolaketa.
- B) Prebentzio pertsonaleko neurriak.
- C) Antolaketa-neurriak.
- D) Garbiketa eta aireztapena.
- E) Kudeaketa zentroetan.
- F) Covi-19arekin bateragarri diren sintomen eta kasu positiboaren aurrean jardutea.
- G) Ikastetxea antolatzeko beste neurri batzuk

Jarraian aipatzen diren neurri guztiak alda daitezke pandemiaren bilakaeraren arabera, eta aurreko ikasturteko protokoloetan jasotako egoeretara itzul daitezke.

#### A.- Taldeen antolaketa:

Eta desberdinetako **ikasgela barruko** taldeen antolamenduari dagokionez, honako hau ezartzen da:

- a) **Haur Hezkuntzan**, bai lehen zikloan bai bigarrean, ikasleek beren artean sozializatu eta elkarreragin dezakete.

Hezkuntza Bereziko ikastetxeek eta Musika-eskoletako adin-tarte horretako taldeek atal honetan ezarritakoaren pareko jokatu dute.

- b) **Lehen Hezkuntzan** ikasleek beren artean sozializatu eta elkarreragin dezakete.



Musika-kontserbatorio profesionaleko eta Musika-eskoletako adin-tarte horretako taldeek puntu honetan ezarritakoaren pareko jokatu dute.

c) Derrigorrezko eta Derrigorrezkoaren Ondoko **Bigarren Hezkuntzan**, ikasleek beren artean sozializatu eta elkarreragin dezakete.

Musika-kontserbatorio profesionaleko eta Musika-eskoletako adin-tarte horretako taldeek puntu honetan ezarritakoaren pareko jokatu dute.

d) Lanbide Heziketa eta Arte Plastiko eta Diseinuko **Heziketa Zikloetako** praktika-aldietan edo lantokiko prestakuntza-aldietan, erreferentziako lanbide-eremuari dagozkion neurriak hartuko dira.

## B.- Prebentzio pertsonaleko neurriak

- a. Ikasleei higienari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazteko saioak egiten jarraituko da, gela, ikastetxe eta adin bakoitzera egokituta, neurriak lasaitzea saihesteko.
- b. Eskuetako higiena maiz egingo da. Ahal de neurrian, eskuen higiena ura eta xaboiarekin egitea gomendatzen da, gel hidro-alkoholikoaren aurretik.
- c. Eztul edo doministiku egitean, ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta estali behar da.
- d. **Maskararen erabilera:**
  - i. Ikastetxeetan ez da maskara nahitaez erabil behar; oro har, ikasleek maskara ez erabiltzea gomendatzen da.
  - ii. Pertsona (ikasle do langile) kalteberek maskara erabiltzea gomendatzen da.
  - iii. Maskara erabiltzea gomendatzen da kasu positiboetarako eta COVID-19aren sintoma bateragarriak dituzten pertsonentzat.
  - iv. Langileen kasuan dagokion prebentzio-zerbitzuak zehaztuko du erabilera hori beharrezkoa den ala ez.
  - v. Eskola garraioan, musukoa erabiltzea nahitaezkoa izango da 6 urtetik gorako pertsona guztientzat.
  - vi. 3 urtetik beherako ikasleen kasuan, ez da komeni maskara erabiltzea inongo kasutan.
  - vii. Zaindu eta prebenitu behar da COVID-19aren arrisku-baldintzetan edo norberaren erabakiz maskara erabiltzen jarraitu nahi duten pertsonak estigmatizatzea.

## C.- Antolaketa-neurriak



- a. Oro har, irakasleen eta familien bilera guztiak aurrez aurre egin ahal izango dira, betiere higie-ne eta aireztapen-neurri guztiak mantenduz.
- b. Gurasoen elkarteak ikastetxeetako ohiko guneetan bildu ahal izango dira, bai eta egokitzen jotzen dituzten prestakuntza-jarduerak egin ere.
- c. Aire zabaleko espazioen erabilera sustatuko da era guztietako jardueretarako, kirolekoak izan edo ez, aisialdikoak zein hezkuntzakoak.
- d. Familiak ikastetxeko espazioetara sartu ahal izango dira, barrualdekoetara zein kanpokoetara, ikasleak sartzeko eta irteteko, eta ikasleak bertan egotea eskatzen duten jardueretara.

#### D.- Garbiketa eta aireztapena:

1. Ikastetxeetako kontingentzia-planetan jasotako **higie-ne eta prebentzio-neurriak** errespetatuko dira, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren eta Osasun Sailaren jarraibideen bidetik. Oro har, honako hauek izango dira:

- a. Garbiketa eta desinfekzioa gutxienez egunean behin egingo da, erabilera-intentsitatearen arabera beharrezkoa den guneetan indartuz, adibidez, komun eta jangeletan, erabilera-baldintza egokiak bermatzeko.
- b. Ikasgeletan, jantokian edo beste espazio batzuetan txandak ezartzen badira, ikasleak aldatzen direnean, txanden artean auztatuko da beti.

2. Ikastetxeko **espazioen aireztapenari dagokionez**, aerosolen bidez SARS-CoV-2 transmititzeari buruzko ebidentzia zientifiko berriak beharrezkoa egiten du **aireztapenaren garrantzia nabarmentzea** eta horri lotutako gomendio batzuk indartzea. Honen helburua da **airearen kalitatea bermatzea momentu oro eta ikastetxeko espazio guztietan**.

**Ikastetxeetan aerosolengatik SARS-COV-2 transmisio-arriskua murrizteko gida**, [koronabirusari buruzko informazioa atarian](#) argitaratua, erreferentziako dokumentua da aireztapen egokia lortzeko eta CO2ko maila monitorizatzeko.

#### E.- Kudeaketa zentroetan.

Ikastetxeen kudeaketa orokorrerako, pandemiaren kudeaketan metatutako esperientzia da informazio-iturri nagusia.

1. Ikastetxe bakoitzean, erreferentziatzeko pertsona bat egongo da COVID-19arekin lotutako gaietarako. Era berean, ESI bakoitzak erreferentziatzeko pertsona bat izango du dagozkion ikastetxeekin komunikatzeko.
2. Halaber, ikastetxearen eta hezkuntza-administrazioaren arteko elkarrizketa arina izatea gomendatzen da, Hezkuntzako lurralde-ordezkararen eta Ikastetxe eta Plangintzaren



zuzendariaren bitartez, Hezkuntza Saileko Jarraipen Batzorde Nagusiko koordinatzaile gisa.

## **F.- Covi-19arekin bateragarri diren sintomen eta kasu positiboen aurrean jardutea.**

Ikastetxeak ez dira eremu kalteberatzat hartzen, eta, beraz, zaintza-protokolo orokorraren arabera, ez dago gomendatuta proba diagnostikoak egitea zaugarritasun-irizpideak betetzen dituzten pertsonentzat baino: 60 urte edo gehiago izatea, immunodepresioa eragiten duen gaixotasun bat izatea eta haurdunaldia.

Ikasleek eta langileek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituztenean, edo COVID-19 proba batean positiboak direnean, ez da beharrezkoa izango isolamendu zorrotza egitea, baina, beste arnas prozesu eta gaixotasun batzuetan bezala, ez da ikastetxera joango sintoma akutuak dituzten bitartean, beren eta inguruko ongizateagatik.

Sintomak igortzen direnean, zentrorra berriz joan ahal izango da, COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak agertu eta hurrengo hamar egunetan, herritar guztiei gomendatutako neurriak jarraituz. Hezkuntza-ingurunean, honako hauek dira:

- Maskara etengabe eta zorrotz erabiltzea.
- Eskuen higiegi egokia mantendu.
- Pertsona zaugarriekin kontakturik ez izatea.

Proba diagnostiko positiboa duten sintomarik gabeko pertsonak aurreko neurriak jarraitu beharko dituzte

Pertsona batek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak garatzen baditu ikastetxean, maskara kirurgiko bat jarriko du eta familiari edo legezko tutoreei jakinaraziko zaie, kaltetutako pertsona adingabea bada.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak, Osasun Publikoarekin koordinatuta, ikastetxeko irakasleen eta langileen egoera baloratuko du.

## **G.- Ikastetxea antolatzeko beste neurri batzuk**

Hartutako esperientziatik abiatuta, prebentzio-neurri orokor batzuk hartu behar dira, aurreko puntuetan finkatutako irizpideetan, osasun-agintaritzak helarazitako edo helaraz ditzakeen irizpideetan eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruz indarrean dauden dekretuetan ezarritakoetan oinarrituta.

Eskolaz kanpoko jarduerak, ikasleek gaua igarotzea dakarten jarduera osagarriak barne, protokolo honetan ezarritako prebentzio-neurriak errespetatuko dituzte. Aire zabaleko jarduerak lehenetsiko dira.